

Gastu militarra osasunaren aurka



JUAN MARI ARREGI

Koronabirusaren pandemia agerian uzten ari da sistema ekonomiko eta politikoak azken hamarkadetan zeri eman dio lehentasuna. Nahiago izan da –gobernu bakoitzaren aurrekontuek hala erakusten dute– defentsa militarrean inbertitzea osasungintzan baino (txertoak, osasun-materialak, arnasmak, maskarak, testak...), eta horrela ari gara ordaintzen gobernuek kudeatutako sistema kapitalistaren politiken ondorioak.

Izurriaren erdian, Bakearen Ikerketarako Stockholmeko Nazioarteko Institutuak (SIPRI) munduko gastu militarren azken datu ofizialak argitaratu berri ditu, joan den urtekoak. Hamarkada bateko gorakadarik handiena izan du. Defentsa militarreko inbertsio globala 1,9 bilioi dolarretik (1,75 bilioi euro) gorakoa izan zen 2019an; hirugarren urtez jarraian ondu da marka. AEBak dira lehenak ranking horretan, 732.000 milioi dolarrekin; Txinak jarraitzen dio, 261.000 milioirekin; eta ondoren datoz India (71.100 milioi) eta Errusia (65.100 milioi). Euskal herritarren zergak jasotzen dituzten Frantziako eta Espainiako estatuek 50.100 eta 17.200 milioi dolar gastatu zituzten, hurrenez hurren.

Testuinguru horretan, pandemiaren ondorioz sistema kapitalista aldatzera behartuta egon daitekeela planteatzea –zenbaitetik iradoki duten bezala–, txantxa besterik ez da. Orain, egoera baliatu eta galerak sozializatzen ari da. Aurpegi gizatiarragoa izan lezakete Kapitalak eta menpeko gobernuek beren lehentasunak beste batzuk balira, adibidez, defentsa militarreko inbertsio milioidun hori osasunera bideratuz. Baina ez gaitzen engaina, sistemak hor ere jarraituko du etekin handiena bilatzen. Orain galerak sozializatzen eta bihar irabaziak pribatizatzen. Eta hori guztia gobernuei esker, kudeatzaile bikainak baitira. ●



DANI BLANCO

Bai, zor publikoaz

XABIER LETONA BITERI

Bizitzen ari garen distopia honetan ez da samurra ezinbestekoa den utopia dosia jartzea gure ikusmolde eta jarreretan. Zorionez bada esperantzarako tarterik, baina baita kezkarako ere. Munduko langileen erdia inguru enplegurik gabe geratuko dela aurreikusi du Nazioarteko Lan Erakundeak, 2008ko krisi ekonomikoa txiki utziko ei du datorrenak...

Odola izozteko moduko aurreikuspenak, guztiontzat aski ezagunak, besteak beste behin eta berriz jakinarazten zaigulako botereak kontrolatzen dituen hedabideetatik. Orain arte gutxi aipatzen dira hitz madarikatuak, baina kukuka ari dira han-hemenka: austeritatea eta murrizketak.

Agintarien informazioaren kudeaketari dagokionez, koronabirusaren garaian zerbait ikasi badugu zera da: hamabost egunetik lehenago prestatzen da mezua –luzapena, umeak, kirola...– eta herritarrek prest direnean, agindua dator. Eta orain galdera: norbait entzuten ari da hedabideetan nola finantzatu den sortzen ari den gastu publiko itzela? Ez dira gizarteko dirudun eta aberatsak kontzientziatzen ari zerga berezien bidez diru gehiago jarri beharko dutela esanez. Ezta ere PFEZaren goiko mailatan zerga tipoak handitu beharko direla. Edo azkenean Tobin tasa indarrean sartuko dela finantza mundua zergapetzeko, eta paradisu fiskalen aurkako borroka COVID-19aren aurkakoa bezain zorrotza izango dela...

Badakigu herritarra nola kontzientziatzen duten egoera txarrena apiril arratsaldeko ekaitza bailitza onar dezan. Eta dirudunekin berdin egiten ez badute, buruan horrelakorik ez dutelako da. Beraz, ez da gaitza imajinatzea krisi hau nork ordainduko duen berriz ere.

Botereak badu abantaila handi bat egoera honetan: pandemia baten preso gauzka gure etxeetan; bai, egoerari aurre eginez –zaintzak, erresistentzia kutxak, hausnarketak, kontzientziazioa...–, baina une bitxi honetan herritarren indar metaketa nola antolatu ondo jakin barik. Agintariak sermoian dioten gisan, denon artean eman behar diogu buelta egoerari, dudarik ez, baina ez denak berdin jarraitu dezan. Egoera hau aldatzeko behar dugu gehien dutenen dirua, publikoa eta komunitarioa indartzeko, besteak beste gehien sufrituko dutenak babesteko. Hori guztia akuilatzeke, beharko dugu asmatu nola jaitsi balkoietatik kalera oinarrizko kontu batzuk adostuta eta atarirako bidean galdu gabe.

Urtarrilaren 30eko greba orokorra ez zen garrantzitsua izan gizartea guztiz geldiarazi zuelako. Ederra eta esanguratsua izan zen, etorkizuneko aliantzak eta arrakastak nola eta non egituratu behar diren erakutsi zuelako. ●